

**BIZKAITARRAI-
BIZKAIERAZ***

www.euskerazaleak.biz

314n. zenbakia

2006 zezeilla



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE

ARANGOITIKO ESKOLA ZAARRA

Ezaguna dan lez, laster eratsiko dabe Arangoitiko eskola zaarra, edo aretarik lotu dan zatia, obeto esateko. Aren lekuan etxebizitza sozialak egiteko asmoa ei dau Bilboko udalak. Arangoitin eskola barria eregi zane-tik, leengo zeregina beteteari itzi eutsen eskola zaarrak, berau utsik lotuta. Denporagarrentxuan baina, auzoko talde kultural batzuen babes-leku biurtu zan, gaur arte. Danetari-koak eta askotarikoak.

Orreetarikoa da geurea. Euskal dantzak ikasi eta entsaietako bariku arratsaldeetan alkartuten gara ara. Inork pentsau lei umemokoen kontua dala. Oker dabil, bada, goitik beera.

Ze izan, danok gara elduak, gazteena berrogei urtekoa izanda, zaarrena, bada, ..., zertarako aitatu? Ez deutso lebarik. Deustuko zein Deusturik kanpoko lagunartea gara. Baten batzuk asagorik etorten dira, Arrasaterik, Laudiorik, esaterako, beste batzuk, deustuarrak dira, barriz. Arangoitiko eskola zaarra dogu alkarleku, bertakoa ekandu bizi.

Alan bada, ara alkartuten diran taldeak urteotan euren ekintzen eta saioen aterpe izan dana galduko dabelakoan dagoz. Ori dala eta, batzarrak eratu dabez arazoa aztertu eta urtenbideren bat edo batzuk udalari maaiganeratuteko. Borondate

utsez eta errespetu osoz bertan ain-beste lagunek makinatxu bat aalegin, batekoak zein bestekoak, egin ostean, alan beste bagarik, kale gorrian iztea ez litzake bidezko ezta itxurazko be. Orregaitik, bada, aldiz-kari beronen lerrootarik Bilboko uda-lean jagokonari eskatu gura geunskio Arangoitiko eskola zaarrean batuten diran taldeak, dan-danak, onean babestuteko eta ordezkio eskaintza duina egiteko. Gure eskabideak alde-ko erantzuna eukiko aal dau!

**Iniaki Martiartu
Bakio**

JAKITURIA

Giza jakituria,
guztiz, lora bikain da
giza semeetan,
jakituri argiak
sortzen ditu gauz onak
gizonen bidetan.

Jakituria doa
egazka itxasoan
izontzi barrian,
burua ta biotza,
biak, batera, doaz
alkartasunian.

Giza jakituriak
arrañez betetuten dau
izontzi zuria,
itxastar langilleak
atsegiñez doazi
ospatuten jaiak.

Arin-aringa dago
itxaso urdiñean
astelen goizean,
jaiak ospatuteko
egun egokiena
uraren gaiñean

Itxas gizon argiak,
gogoz, gertatu dira
itxaso aurrian,
urak, oparo, dagoz,
urdin dizdiz artian,
itxas zabalian.

Jakituria dago
itxasoaren aurrez
mendi magalean,
zugatzak edertuten,
gero ta bikaiñago,
aritzen artean.

PAULIN

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*



ALDIZKARI ONEK
BIZKAÏ'KO FORU-ALDUNDIAREN
DIRU-LANGUNTZA JASO DAU

BIZKAIKO ELEIZEA ETA EUSKERA

Badakit ZER aldizkaria abade askok irakurten dabena.

Aurrean idatziko dodana ez da izango, bearbada, abadeon gogokoa, baina uste dot ori be entzun egin bear dabela.

Bizkaiko Eleizea kritikauko dot, gogor. Ori alan egiteko eskubidea badaukadala uste dot. Pekataria naz, autortu egiten dot. Eta pekataria nazan ezker, eleizkizunetara joaten naz askotan.

Txiki-txikitatik euskerazko eleizkizunak izan dira, ia beti, etxeokak eta neuk be aukeratutakoak, gogokoenak. Eta euskeraz izan diralako sentiduten izan dogu geure burua eroso eta natural-natural eleizan.

Alde orretatik Eleizeak guganako betebearra, zerbitzua, sasoi baten, zeozelan bete dauala esan geinke: Zesarrerri zor izan jakona emon egin jakon.

Baina emon be, aspalditik geiago ez jako emoten Zesarrerri berari jagokona.

Ogei urte inguru-edo asi zan zerbitzu ori indarra galdu ten.

Gaur egun, egoera negargarria dala esan bear dot: Arlo orretan Eleizeak emoten izan dauan zerbitzu ori makaldu da goitik beera. Makaldu egin da, bai kopuruan bai kalidadean.

Non eta erri euskaldunetan, atan be: Ardura au aspaldikoa da neure barruan. Inoz, Bizkaiko Eleizan ardurak daukezan abade bateri baino geiagori azaldu deutset ardura eta, era batera, kritika au.

Euren erantzuna ez da izan areaqn be itxaropentsua, ez ei dabe gura euskerea, gure euskerea eleizkizunetan ghettoan lez bizi daiten.

Zer egiten dabe orduan ori konponduteko? Eleizkizun elebidunak egin, au da, euskerazko eleizkizunak elebidun biurtu, erderazkoak, barriz, erderaz!

Eleizkizun elebidunetan neurriak eta neurriak be bada goz.

Leengo euskerazko eleizkizunak, abadearen arabera, erdaldunago biurtu dira euskaldunago baino. Esan bear dot, nik ikusitakoa ikusita, jokabide ori gero eta zabalagoa dala abadeen artean, erri euskaldunetan baina.

Sarri be sarritan, euskeraz esaten dana euskaldunok barrian entzun bear izaten dogu erderaz, ez da normalean bestetara jazoten. Jokabide onek euskaldunak nekatu eta gogaitu egiten gaitu, erre esango neuke, euskaldun kontzientzia daukagunok, beintzat.

Itzulpena sufridu bear izaten dogu bein eta barrian. Elebitasunaren atxakiaz gauza bera birritan entzun bear izatea, gero! Ez da au egoera normala, buru eta buztan bako egoerea dala argi eta garbi esan bear dot.

Egoera minorizatuan (benetako ghettoan) biziten kondena gagoz, antza, euskalduna euskaldun dan artean, beintzat. Azken baten, euskaldunak galduz urten, ez erderaz jakin edo ez dakigulako, geure euskeraz bear dan moduko zerbitzurik emoten ez jakulako baino.

Beste alderdi batetik, eleizkizun elebidunetan erdaldunak eskua bete euli lotuten dira euskerazkoa ezer ulertu barik. Areek be gogaituta.

Zer zentzu dauka, bada, eleizkizun elebidunak egiteak batzuen eta besteen bearrizana bete egiten ez bada? Bat be ez.

Arazo au eta oraindikarren gogorrak dauke Iparralden edota Nafarroan. An gurean gagozan baino urrengo fasean dagoz: euskerea an ia guztiz desagertu da eleizkizunetan.

Antzeko egoerara garoaz, aurki, Bizkaiko Eleizeak. Gipuzkoan, ostera, gauzak obetotxu dagozalakoan nago. Zergaitik? München edo Londonen gauzak erabat normal dagozana edonork daki. Zergaitik?

Gogoan dot, orduan umemokoa izan nintzan arren, On Klaudio eta Erretolazaren edota Gogor taldeko abadeen aaleginak, euskera utsezko eleizkizunak gure Errian merezitako lekua artu eien. Asago lotu dira sasoi areek, zoritxarrez. Tristeziak.

**Iniaki Martiartu
Bakio**

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogei euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK

BILBAO BIZKAIA KUTXA

Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!

Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan bbk'ra eta ordaindu 20 €. Ez dozu ezer be idatzi bear.

Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.

Eskerrik asko!

ZUGAITZ ZELAIAK LIZARRAN

Ba dauka Lizarrak toki bat guztiz berexia, ederra, benetan, danentzat atsegiña. Abo ZABALIK GOGOTIK DEITZEN DUTENA: “LOS LLANOS”.

Naparroako erri askotan izenak euskara garbian daukate. Maiz ikusten duguna “-PAGOZELAI” da. Benetan toki zoragarria, eroso ta zabala, Gorritiko errian.

Beste toki bat ba daukaguna izena illuna duna, Andimendiko sarreran. Beste leku onen izena ZUNBELTZ da; Lezaungo errian. Izen onek, Eskudero musikalaria, Euskal opera bat idazten ari zala, ZIGOR operarentzat, agertzen dan gizon gaiztoarentzat izen gogor batentzat On Manuel Lekuonari eskatu zion bere iritzia, onen erantzuna alaxekua izan zan; “ZUNBELTZ IZENA JARRI BEAR ZAIO”. Gaur esker txarrak bota dute, ankaz gora, ZUNBELTZ IZENENKO VENTA.

“LOS LLANOS” izeneko tokiak merezi luke euskal izen bat jartzea: tokia benetakoa, naiko eroso, zabala aurrak jolasteko eta lasterka ibiltzeko ta udaran epela. Zugaitz galantak, egokiak ditu egurasten ibiltzeko. Lizarra errian nola beroaldiak izaten dituzten, erria nola ur ondoan dagon naiko atsegiña da toki ori. Ibaia laster dijoa erria milikatzen ta itzala zabaltzen.

Lizarrako ibai onen izena EGA da. ZUMARDI onen izenak urez asetzen ditu leitze aundi batzuek, ondo busitzen ta itzal ederrak zabaltzen dijoa.

Ibai au bizpauru zubi azpitik doa ibilli-aldia zabaltzen erriaren inguruan naiko eroso; bertan dago beste lurralde polit bat elizatxo baten azpian, etzanda lasai egoteko



“Los Llanos”. Lizarran.

atsegiña, toki zoragarria. Ibai ertze au ederra da, opari aundi baten mallakoa, opari au izadiak eskeintzen digu.

Lizarratik urruti nengoela, SAN ANTONIO, TEXASen, ain zuzen, ango ibaiak ikusten ari nintzala, Lizarrako zelaiak burura etorri zitzaizkidan.

Ango lurraldeak gogoratzen zidan San Antonioko ibaiaren edertasuna, bertako gizonak egin zutena goimallako eredu bat bezala ta asmo bat zetorkidan burura; “Zergatik ez ote dituzte Lizarrako gizon taldea SAN ANTONIORA bidaltzen ibai ondoan egin zuten lorategia ikusteko, EGA ibaian ikus zezaten nola moldatu gauzak, egokiago egiteko ibai ertzean.

SAN ANTONIOKO eredu atsegingarria izan leike Lizarrarentzat, amesgarri ta berexia. Egunez, egun sentiaren argia dugula, gabez illargi betearakin izan leike atsegin eta zorientasun aundia ematen

dun egurasteko lekua.

Ortxen dago tokia, iñoiz ezin duguna aztu alkar izketaren gogua sortzeko, baita asmo ederrakin etxeruntz joateko. Egurasteko izan dezake zelai onek izen aundi bat. Erriarentzat izan leike biltoki atsegiña.

Zelai onen berexitasuna billatu dezakegu orain. Ortarako euskaldun izen bat ere ez litzaioke gaizki etorriko.

Gaurko gizasemeak aitortu dezaten zelai onek izan zula egitazko maite-minduak biotz zabalik esan dezaten: “ERRI BAT IZEN ZEN”.

Latxaga

TXIROAK ETE GARA? (¿SOMOS POBRES?)

Una vez el padre de una familia muy rica llevó a su hijo a pasear por el campo con el propósito de que su hijo viera cuán pobres eran esos campesinos.

Pasaron un día y una noche completos en la destartada casita de una familia muy humilde. Cuando regresaban a su casa en su lujoso automóvil, el padre le preguntó al hijo:

- Hijo, ¿qué te ha parecido el viaje?
- ¡Muy bonito, papi!
- ¿Viste qué pobre puede ser la gente?
- Sí– respondió el niño.
- ¿Y... qué aprendiste, hijo?

– Vi– dijo el pequeño– que nosotros tenemos un perro en casa, ellos tienen cuatro.

– Nosotros tenemos una piscina que llega hasta la mitad del jardín, ellos tienen un arroyo que no tiene fin.

– Nosotros tenemos unas lámparas importadas en el patio, ellos tienen las estrellas.

– El patio de nosotros llega hasta la pared junto a la calle, ellos tienen todo un horizonte de patio.

– Ellos tienen tiempo para conversar y estar en familia; mamá y tú tenéis que trabajar todo el tiempo y casi nunca os veo:

El padre se quedó mudo y su hijo agregó:

– Gracias, papi, por enseñarme lo pobres que somos y lo ricos que podemos llegar a ser.

Idazkitxu au, udalak argitaratzen daun izparringian irakurri dot.

Izparringi ori, atsegiñez artuten dogu, geienetan oraingo barriak ekarten dauz, baña antziñakoak be bai.

Idazki ori ¿Somos pobres? izendatu dabe ta oso ondo dago.

Nire ustez, txiroak garala uste dot, kasu batzutan ez diruagaitik beste gauzakaitik baño.

Len umeak eta gurasoak be, alaitasun aundiagaz gabon-jaiak itxaroten gegozan. Zergaitik? Nire sasoiari, urtebetetzetan, nota on batzuk ataraten ba zenduzan, baña jai onetan batez be, gurasoak, jostailu berezi batzuk erosten ezkuezalako.

Gure amak gauetan, nire panpiñentzat jantziak egiten ebazan, geienetan nire lakoak ziran, bitartean, gure aitak nire nebeearen mekanoak edo berebillez etabar, jolasten, berak gero esaten eban probatzeko zala.

Urtero amagaz, Atxuritik Deustoraño oñez joaten giñan, S. Felicísimo'n "Belen" berezi bat ipinten ebelako.

Zelako pozez joaten giñan ama nire nebea ta irurok!

Baña gaur irratian, ume bat entzun dot, bere ikastetxera Olentzeroa joango dala ta umeek euren etxeetan eskatuten dabena ikastetxera eroango dautse.

Ez zan umezurtz batzuen ikastetxe bat, ez!

Arrituta geratu naz ori entzutean, pobrea bazara, zer asmatuko dozu beste ume batzuen jostailuak ikusten?

Zure kolkorako esango dozu, oneri ekarri eta niri zergaitik ez?

Eta ori entzuten esan dot, oraingoa "marketing" baka-rik dala, ez dago besterik.

Zorionak biotz-biotzez, nire izenean; ori oparitzeko ez da bear dirurik.

Karmele

EUSKERAZALEAK

Euskerea erabiltearen aldeko Alkarteak

Urteroko Batzar Nagusia egingo dau 2006-02-23 egunean, 7:30 lenengo deia, 8:00 bigarren deia

EGITARAUA:

- 1.– AURKEZPENA (Olazar'tar Martin'ek)
- 2.– URTEKO DIRU-KONTUAK (Karmele'k)
- 3.– URTEKO EKINTZAK (Olazar'tar Martin'ek)
- 4.– BATZORDEKIDE BARRIAK
- 5.– ESKARIAK ETA ITAUNAK

EUSKERAZALEAK

Asociación para Fomento del Euskera

Celebrará su Asamblea Anual en Colón de Larreategi, 14, 2º, 0ª el 23-02-2006, a las 7:30 en 1ª convocatoria y a las 8:00 la segunda

PROGRAMA:

- 1.– PRESENTACIÓN (Martín Olazar)
- 2.– CUENTAS DEL AÑO (Karmele)
- 3.– ACTIVIDADES DEL AÑO (Martín Olazar)
- 4.– RENOVACIÓN DE CARGOS
- 5.– RUEGOS Y PREGUNTAS.

LENDAKARIAK/EL PRESIDENTE

BIBLIA EUSKERATZEN: JOANES LEIZARRAGA

Benaparroa'ko Beraskoitz erritxuan jaio zan baiña ez dakigu zein izan zan jaiotzaren eta eriotzearen urtea

Eleiz-gizona izan zan, lenengo katolikuen artean eta gero protestante.

Ez jakon berari otu Biblia euskeratzea, Benaparroan eta Bearne'n erregiña zan Juana Albret'ek egin eutson eskari ori. Iru liburu idatzi ebazan: Testamentu Barria, Kristiñauen intruktionea eta Kalendrea edo egutegia.

Juana Albret'ek bear-bear ebazan euskerazko liburuak, bere eritxiak gure Euskalerrian zabaltzeko eta, beste alde batetik, ba-eukan euntzutea Leizarraga euskalzale ona zala eta Bearne'ra dei egin eutson. Leizarraga'k ondo erantzun eutson eta Juana'k laguntzaille on bat aurkitu eban. Liburu-zalea eta euskerea barru-barrutik ezagutzen ebana.

Ikusi dagigun zelako eritxiak agertzen dabezan elertizaleak Leizarraga'ri buruz.

Leizarraga'k nasai darabil euskeraz bere lumea eta atsegiñez irakurten dira bere iru liburuak. Kezka bat agertzen dau berak idazteko jesarten danean: Euskerearen batasuna nai eban eta orretarako alegin aundia egin eta lortu be bai Lapurdiko euskerea eta Naparroa'ko alkartzea. Baiña ez eban izan ezelako ondoren onik beste euskakiai bagira. Ara zer diñon Lino Akesolo'k: "Lizarraga'ren euskerea ez zan , bere aldian bertan, euskaldun guztien batasuna egitekoa eta guztiak ulertzekoa. Berak be ba-zekian ori. Nolabaiteko batasuna egin leikean lapur eta nafartarren artean. Andik kanpora ez ain errez"

Erraldoi bakarra da Leizarraga euskal literaturan, ez dauka ez aurrekorik eta ez ostekorik, Aita Villasante'k diñoskunez.

L. Mitxelena'k be zerbait ba-diñosku berari begira: "Lizarraga'k ederki gaindu zitun, gauzak erabat artzerakoan, aurrean agertu zitzizkion eragozpen ugariak. Ura irakurriaz uste izango genuke, ainbat argibide ezpaguezka bestera, luzaroko idatzi-lanez legetpetua dan izkuntzan idazten duela".

1571n. urtean argitaratu eban Leizarraga'k bere Testamentu Barria.

Bere bizitzako gorabeerak aitatzekotan, ona emen batzuk ia guztiak Biblia euskeratuta gerokoak. Aurretik ez daukagu bere barri askorik Braskoitz'en jaio zan, baiña ez dakigu zein urtetan eta ez nortzuk izan ziran bere gurasoak. Abade katolikua izan zan baiña ez dakigu noiz abade egin zan eta non artzain-lana bete eban, euskeratze-lana egiteko Pabe'ra deitu eutsoenean, Lapurdi'n egoala bai.

Juana Albrít'ek bere katolikutasuna itzi eta kalbindar biurtu zanean, aurkalari asko izan ebazan euskaldunen artean. Makiña bat eriotza, kartzela, zigortze eta naigabe izan ziran urte negargarri areitan.

Gure Leizarraga be kalbindar biurtu zan, 1550'tik 1560'ra bitartean. 1964n. urtean egin zan Pabe'n kalbindarren batzarra eta antxe erabagi eben Leizarraga'ri dei egitea eta bertaratu zanean Biblia'ren Testamentu Barria eta otioitz batzuk euskeratzeko eskaria egin eutsoen.

1565n. urtean maiatzerako amaituta eukan itzulpena eta Oloron'go sinodoan lau artzain euskaldun artu ebazan Leizarraga'ren lana zuzentzeko eta oneik itzulpena onartu eben, baiña darabilen euskerea ez dala Euskalerrri guztirako egokia esan eben. Azkenean onartua izan itzulpena eta Leizarraga Labastida'ko artzain izendatu eben

1571n. urtean Rotxela' n dago Testamentu Barria irarkolan argitaratzen

1593 eta 1596n. urteetako sinodoetan ez da agertzen Leizarraga Pabe'n, ordezkoa bialtzean dau. Or inguruan il zan antza. 1601n. urtean bere ordezkoa izendatu eben.

Naiz eta kalbindarra izan, euskaldunak esker ona agertu bear dautsagu gure Leizarraga'ri, Barri Ona gure artean zabaltzeko egin eban lanagaitik eta euskerearen alde egin eban ekiñagaitik.

Olazar'tar Martin'ek

UDA AZKENA

Egoaren soiñuam
orbelak dantzari
Udazken epelean
edoi-ertzak gorri.

Bakearen sentzuna`
inguon eder,
alde guztietatik
bizi-poza dager.

Aldi atsegin onek,
zoriona dari:
Beti iraunaren otsak
datorkidaz argi.

Gogoaren giroan
gogamenak bare.
Txorien egaztadak
euria dakarre.

Gizaki ta abereak
guztiak betargi,
eder-senai adi
ez naireke nagi.

Aurraitz'ek
Aiangiz'tik, 2005 iraila 19

SALMOAK

87N. SALMOA: ASI ZIRAN ELEIZEA PERSEGITZEN

Lenengo kausa Pedro ta Joaneke
elbarria sendatzean,
berrogei urte zituana zan
zegona eleiz-atean.
San Pedrok esan: “Au sendatu da
Jesus Jauna sinistean”.
Apaizak umil gelditu zizan
danak kontra jeikitzean

Bernabe Jose Txipreko batek
soruak saldu zituan,
ta diru dana ipiñi zuan
apostoluan eskuan.
Ananias ta Safirak berriz
gezurra esan onduan,
andre gizonak ilda gelditu
etsaiaren engaiñuan.

Ananias ta Safira ziran
berentar bataiatuak,
diru-partea gorde zuen ta
“Dana da” esandakuak.
Ama Birjiñan otoitzak ziran
beren alde eskatuak,
Jaunak erantzun: “Ezingodue
Eleiza kendu gaiztuak”.

Andre gizonak il ziralako
arroturik errikuak,
Pedro ta Joan izan ziraden
beren kartzelan sartuak,
Ama Birjiñak etsaiak zitun
inpernura amilduak,
eta Jaunari eskatu zion:
“Libratu apostoluak”.

Jaunak esan: “Biraldu eitzaz
aingeruak libratzera”.
Aingeru bat jun ta esan zien
“Zuarte predikatzera”.
Aterik gabe atera ziran
Pedro ta Joan batera,
Gamalielen esanagatik
eldu ziran lagatzera.

Apostoluak atera ziran
Berri Ona zabaltzera.
Ama Birjiña guztien alde
Jaunari errezatzera.
Pedro erten zan Lidia Jopen
zan Zalita piztutzera,
gero biurtzen ziran Amari
gertatuak kontatzera.

Jerusalenen neska pobre bat
zuen bataiatua,
bost milla konbertitu zirane
au zan beren artekua.
Bere lanetan gelditua zan
miñez ezin sendatua,
aztutzen asi eta izan zan
grazi bizitza galdua.

Birjiña juan da etsaiak bota
inpernua barrenera.
Ta gaixo arek esana zion:
“Andre bat sartu etxera”.
Birjiñak esan: Etsaia zan oi
Biurtu konbertitzera,
damutu eta Jauna artuta
eldu zan ondo iltzera.

NAPARROA

88N. SALMOA: ESTEBAN SANTUA IL EBEN

San Esteban zan ama Birjiñak
oso maitea zuana,
zekialako izango zala
Jesusgatik ilko zana.
Jaun Espiritu Santuz betea,
Jaunak berekin zeukana,
eskriba eta fariseatarrai
bildurikan etzeukana.

Iru alditan nai izan zuen
au il da ezkutatzea,
Ama Birjiñak nai izan zuan
danetatik libratzea.
Etxe barruan sartutzen zuen
nairik ixil itotzea,
aingeru batek egiten zien
berengana ekartzea.

San Esteban zan garbia eta
santutasun aundikua,
apostoluak “Diakono zera”
Eleizan izendatua.
Alargun eta pobre zendenai
laguntzeko lenengua,
fede gabeko judutarrari
egiak esandakua.

Judutar aiek arrabiakin
artu testigu faltsuak,
ta Estebanen kontra ziraden
gezurrak esandakuak:
“Jainkoa eta Moisesen kontra
esana maldiriak”,
eta elduta eraman zuen
juezengana gaiztuak.

Sermoi gogorra egiña
federik etzuelako,
apaizak belarriak ta
erantzunik etzalako
Birjiñak aingeru bat bildu eban
Esteban preso zalako
“Amari esan pozez nago
martiria naizelako.

Pena bat daukat bedeinkatua
Amari ez esakatua”.
Ama Birjiñari au esaten
juan zan aingeru santua
Au entzutean juan naiz
errian alborotua;
auspezturikan “Lagundua
izan Birjiñak eskatua.

Santu Esteban illa izan zan
arrizko euriarekin,
bere anima eraman zuen
aingeruak pozarekin.
Jaunan urrean ipiñi zuen
aintzazko koroiarekin,
zerutaz danak abestu zuen
Esteban sartzearekin.

Esteban il zan Jesus il eta
beatzi illak zirala,
abenduaren ogeitaseian
ogeita amalau zeuzkala.
Bere gorputza lagunak miñez
eramana izan zala;
beren otoitzak Saulori eldu
erropa-zai zeguala.

**Aldalur'tar Justñe
(Klaratarra)
(Gasteiz)**

LOREA TA USAIN ONA, MARGOAK, SENDATZEA, AZTIAK, ORIOAK, JANTZIAK

Larroseak daukan usain gozoa ez ba'leu, ez geunke ain edertzat artuko. Baiña zelakoa da larrosearen usaiña? Lora bakoi-txak dauko bere izkuntza ezkutua.

Lili ubel edo bioleta txikiak, jazmin zuriak eta ezpiliku urdiñak deika daukaguzala dirudi: "Zatoze nire usain gozoa artzera".

Sarritan lorarik xumeenak izaten dira usaiñik gozoena daukenak.

Ejiptoarrak euren gorputzak mirraz eta aloez lurrintzen ebezan. Eleizkizunetan be erabilten dira usain gozoak, edonon eskiñi izan jako Jainkoari intzentsoa, beronen ke usaintsua otoi-tzaren antzera, gorantza doala.

Erromatarrak koloni-ura ukenduak eta askotariko lurrunak erabilten ebezan.

Atenastarrak oraindiño geiago, ardaoari usain gozoa emoteko bioletak, larrosak eta beste bedar batzuk nastaten eutosoezan.

Baiña usaingintzan, aspaldion, Frantzia da nagusi: Frantze'tarrak trebeak dira izadiak emoten dauzan lurrunak nastetan eta usain gozo barriak sortzen be da-dakie.

Grasse uria mendi ta muiñoz inguratuta dago eta, iturri usaintsuak txangolariantzat itzira, jagi gaitezan goizeko lauretan. Zelaiak oraindiño lo dagoz baiña lora-batzailleak lanean diardue, trebeenak ogeta lau milla jazmin batzen dabez eguzkiak urten baiño lenago eta guztiakaz iru kilo orri edo, gero, libra bat lurrun egiteko sei milla kilo bear dira. Larrosearenak gitxiago.

Frantze'ren egoaldean klabeiña, ispilikua, lili ubela, nardoa edo akara be lantzen dira orretarako, baita milloi bi tone laranja-lora be. Sendi osoak bizi dira olako lorak saltzetik.

Berezko lurrunak ain karuak diralako, orio batzuk nastaten jakez, baiña olakoen usaiña ez da zelaietan dabillen aize bigunak eta eguzkiak jotzen dituen ormetako alelien edo auntz-praknen bestean usain gozokoa.

Ba-dakizue Jauja zer dan? Urdin bedarra egiten zan tokia. Bedar au Frantze'ko Gironda'n be sortzen da. Orduko jabeak aberastu egiten ziran, orretarako orriakaz oreaga eginda eta ora orregaz ogi-antzeko bat. XVIII gizaldian ogei tone olako ogi bialtzen ziran Bordele'tik erbestera.

Lenago landaretatik ateraten ziran margoa egiteko autsak, baiña orain kimiaren bidez egiten dira margoak, baiña lengo areek millak urteetan irauten eben, oraingo margolariak, barriz, ez dake alako iraupena zelaz lortzen eben.

Edestian sarritan agertzen dira landaren margoaz margotutako gaiak, esaterako Norwega'ko erregiñearen garrikoa, Ejipto'ko gorpuen oialak, maomatarren jantziak gorputza urdintzeko, inditarrak euren "bija" egiteko eta gorputzak gorritzeko... guztiak erabili dabe landaren margoakia.

Bedarrak gizakia sendatzeko indarra be ba-dauke, eta beti izan da gizakia bedar onein zale. Eta ori jainguraz bizi be iñoiz galdu dau saioak egiten, eta ez alperrik.

Txina'ko edesti zarretan eun senda-bedar agertzen dira, India'koetan bosteun, XIX gizaldiaren azkenetan amairu milla dira senda-bedar ezagunak.

Osagilleak sarritan aurka egon arren, baserritar apalak jakiten dau zein bedar dan ona osasunerako. Orregaitik, olako bedarrak arduraz zaintzen dauz bere ortuan. Orain olakoak saltzeko dendak be ugaritu dira.

XVI gizaldian uste zan landarearen itxurak ba-eukela zerikusia osatzeko bere indarragaz, birika-bedarra biria osatzeko, orriak biriki-antzekoak daukazalako. Ezaguna da kina. Peru'n errege-ordearen emaztea sukarrak gaisorik egoanean, (1638) inditarrak kinina egosia emon eutsoen eta sendatru egin zan.

Lurralderik geienetan zaintzen dira senda-bedarrak, eta ugari!

Aldi baten sorgiñak eta aztuak bildurtuta eukezan inguru guztiak eta etxeetara sartu ez eitezan lizar-abarra ipinten zan atean. San Juan gaba zan aztu edo azti-landaren gaua, sua iziotu eta inguruan eguzkia gaiñean dagoalako dantzak egiñez,

Urrengo uzta be kontuan dala eta kalterik izan ez dagian "sapoak eta zugeak erre, artoak eta gariak gorde" abesten dan artean.

Aztu-bedar nagusia mandragora da, onen zanak giza-itxura daukelako eta bedar onek gizakia ikusi-ezin biurtzen ebalako, urre-altxor gordeak non dagozan esaten ebalako, Jainkoaren eta deabruaren asmoak agertzen ebalako, baiña landarea zanetik ateraten ebana il egiten zan. Ori jazo ez dedin, inguruan lurra sakontzen eben gero lokarri bategaz lotu landarea beste aldean txakur baten sameari. Gero txakurra jo eta landarea arrisku barik ateraten zan, txakurra bertan ilten ba'zan be.

Aztiak senda-bedar asko erabilten ebezan: Italia'n sukarrak kentzeko, Flandes'en onurea edo reuma kentzeko, Alemania'n izai baten adarrean korapilloa egiten eben orretarako. Frantze'n san Juan sutik illinti bat artzen eben eta txoko batera eroan eta etxeko sua illinti aretatik biztu.

Azkeneko gizaldian krizaillua erabilten zan argi egiteko eta orioa bear eban gai lez.. Orain krisaillua ez dau erabilten basoan dagoan artzaiñak-edo izan ezik.

Gure aurretikoak itxaurretik edo pago-ekzurretik ateratako orioa aitatzen dabe eta olio-ondoetatik ateratakoaren beste gorensten eben.

Landaren orioak garrantzi aundia dauka, janarientzat naiz tramankuluentzat.

Oneik dira lurralde epeletako oriodun landarak: aza baltza, arbi-azia, ziapea, lo-bedarra, eguzki-lorea, liñoa, almendrea, intxaurra eta urretxa. Eta urriñekoak, sesamoa (onek emoten dau lur guztian dan oriotik), kakauetea, kokondoa, soja..

Askok dira argizaia emoten daben landarak be.

Polinesia'n erreza da jantziak egitea: naikoa da masustondoren baten azala ebagi eta jostea. Baiña liñoa da orretarako geien gai dana. Burdin-arogan be ezaguna zan. Jantziak egiteko erdia baiño geiago ejiptoarrak ezagutu eben algodoia da.

BIZKAIERAKO “BERONERI” TA “BERORRERI” DATIBOAK

Lengoan aitatu genduan Lazarraga arabarraren 500 urtetako esku-izkribu bat aurkitu zala oin urte bete, Arabako barietatea dan bizkaieraz idatzita. Oneri esker probatzen genduan, iñoiz baiño obeto, jatorrizko izenordaiñak (pronombres personales), *neur*, *eur*, *geur*, *zeur*, zirala. Izenordain oneetako *neur* eta *eur*, alkarturik “gauzak” izentatzeko asmatu zan **aur* itzagaz, *aur-neur*, *aur-aur*, *aur-*, erakusleak sortu zirala, gaurko *au*, *ori*, *a*.

Gañera, ikusi daikuz esku-izkribu orretan, *ne-ur-oni*, *ne-ur-onek*, *ne-ur-onen*; *ze-ur-ori*, *ze-ur-orrek*, izenordain indartuak (pronombres intensivos). Baita be, *ne-ur-oni* baiño aurreragokoak diran *neur-au-ni*, *neur-auni*, *neur-au ni* ipinten dituz idazle onek, eta *neroni* ta *neurau* aldaketak. Oin dala iru-lau urte argitaratutako artikulo baten esaten genduan, adibidez, gaurko *neroni* formaren jatorria **neur - aur-neur* zala ta bere lenengo aldaketa **neur-aur-ni* izan bear ebal. Aur ba, zelan ikusten dogun oin 500 urte dirala, Lazarragarak idatzita eukala *neur - au-ni* aldaketa au. Idazle onen *neur - auni* ta guk ipintzen genduan *neur - au(r)-ni* bardiñak dira, tarteko *-r*-bakar bat izan ezik.

Lazarragaren idatziak probatzen dau gure teoria, au da, *neur - aur-neur* jatorrizkoaren lenengo aldaketa *neur - au(r)-ni* izan zala. Orregaitik, izenordain indartuen sorrerako talde osoa onelan izan bear eban: *neur - aur-neur*, *eur - aur-aur*, *geur - aur-neur*, *zeur - aur-aur*. Itz onen lenengo zatia *neur*, *eur*, *geur*, *zeur*, izenordaiñak dira ta bigarren zatia, konposatua, *aur-neur* eta *aur-aur* erakusleak, lengo artikuluan esan genduan legez.

Sorreran gauzak onelan gertatu ziran:

- Izenordain onek sortu ziran: *neur*, *eur*, *geur*, *zeur*.

- “Gauzak” adierazteko itza, **aur*, alkartu zan *neur* ta *eur* izenordaiñak eta *aur + neur > aurneur* ta *aur + eur > aureur* erakusleak sortu ziran, gaurko *au* ta *ori*. **Aur*, bakar-bakarrik lagata, **aur > ar* egin eban, gaurko bizkaierako *-a*.

- Len aitaturako *neur*, *geur*, *eur*, *zeur*, izenordaiñak, *aurneur* eta *aureur* erakusleak uzarturik, *neur-aurneur*, *geur-aurneur*, *eur-aureur*, *zeur-aureur* izenordain indartuak sortu ziran, bizirik dagozan *neroni*, *geuroni*, *eurori*, *zeurori*, baiño aurreragokoak.

Onelan, argi ikusten da izenordaiñak, erakusleak eta indartuak zelan talde koherente bat osotzen daben, alkarregaz artu-emon estuak euki zituzela euren sorreran eta alkarri sortzen lagundu eutseela.

Onek danok ikusirik, esan bear dogu badagola beste izenordain bat, genitibo *neur-e > ber-e* dabena beste “*personak*” guztiak legez, au da, amaierako *-n* barik, *amar-e-n*, *aitar-e-n*, *on-e-n*, *orr-e-n* eta beste izen guztiak daroena. Onek esan nai dau, antxinako euskaldun zarrentzako, au da, gure asabeentzako, izenordaiñen sorreran, *neur-e* genitibo “*personala*” zala eta ezelan be ez “*erakuslea*”, amaierako *-n* bear ebalako orretarako.

Orrelan izanik, *neur-e* onen nominatiboa **neur* izan bear eban, *neur*, *geur*, *eur*, *zeur* legez, azken lau “*persona*” onek izan ezik, “*beste pertsonak*” izentatzeko. Olan ba, naiz ta **neur* nominatiboaren erabillera ez dogun ezagutu, galdu zalako, *berau*, *berori*, *bera*, izenordain indartuak erabiltzen dira gaur, **neur* orretik datozenak, gure jakintsuak eta baita be Euskaltzaindiak erakusleak dirala diñoenak argudio zeatzik emon bage. Berez, sorreran beintzat, begi bistan dago, izenordaiñak edo “*personak*” izentatzeko sortu zirala eta ez “*gauzak*”.

Dana dala, *ber-au/ber-onek*, *ber-ori/ber-orrek*, *ber-a/ber-ak* esaten dogu. Olan gertatzen da indartu onek itz konposatuak diralako, lenengo zatia *personala* dalarik, kasu onetan *neur/ber*, eta bigarren zatia erakusle bat, kontuan izanik *persona* ori nun kokatuta dagoan, au da, *amen*, *or* edo *an*. Orregaitik, bigarren zati ori erakusleak berberak dira: *au*, *ori*, *a*. Erraz ikusten da euren esan-naia: *ber-oni/ber-*

au = neure ondoan dagoan “*beste pertsona*” bat; *ber-ori = eure* ondoan dagoan “*beste pertsona*” bat; *ber-a = gu biokandik* urrun dagoan “*beste pertsona*” bat.

Edozelan be, badagoz lekukoak, iparraldeko Urte, Ithurry, Pouvreau, Duvoisin, *ber-oni* nominatiboa eskeintzen dabenak *ber-au* itzaren tokian, *au* erakuslea baiño jatorragoa dan *oni* zarra agerian ipiñirik. Bardin gertatzen da *ner-oni > ner-au* ta *ger-oni > ger-ok* nominatiboakaz. Gañera, *ner-oni* baiño zarragoa da *neur-oni*, *ger-oni* baiño *geur-oni*, ta guztiak olantxe. Onelan ba, bardin-bardin, *neur-oni/ber-au*, *neur-ori*, *neur-a*, izan bear ziran zarragoak.

Neroni ta *geroni*, nominatiborako ta datiborako, bietarako, erabiltzen dira. Zeozer txarto dago. Kasu onetan ezin dau bietarako ondo egon. Bizkaieraz erabiltzen diran *ber-oneri* ta *ber-orri* dira lenengo datibo zarrak, erakusleak *oneri* ta *orri* lez, eurokaz konposaturik sortu ziralako. Beste euskalkietako *ber-oni (berau)* ta bardin *ner-oni*, *ger-oni*, *er-ori*, *zer-ori*, nominatiboak dira, berez, bakar bakarrik eta ez datiboak. Orregaitik, Iparraldean be ezagutzen eben *ner-oniri* datibo zarra, Duvoisin, Haraneder eta Duhaldek diñoenez euren idatzietan. Onelan ba, ondotox ikusten da bizkaierako *ber-oneri* ta *ber-orri* datiboak dirala jatorrenak eta zarrenak. Merezi dabe aintzakotzat artzera.

Beste gauza bat. Lengoan esan genduan bizkaierako *areri* datiboa ez zala jatorrizkoa ta *oneri* ta *orri* erakusleen analogiatik sortu zala. Oin esan bear dogu *ber-areri* datiboa ez dogula aurkitu, bakarrik *ber-ari* normala dana, *ari* erakusle amaiera jatorragaz.

Guk ustean dogu, euskera batua “gipuzkera osotua” bada, ara amen beste aukera eder bat zelan galdu dan bizkaierako *ber-oneri* ta *ber-orri* datiboak onartzeko eta euskera batua obeto osatzeko. Baita be, analogiaren aldetik, *ner-oneri*, *er-orri*, *ger-oneri*, *zer-orri* datibo jatorrak euskera baturako artzeko. Barriro be, erri onetako jakintsuak, jakiñik edo jakin barik, ondotox bartzatu dituz bizkaieraren lekuko zarragoak eta Euskalerrriaren ia erdiak darabillizanak.

Irugarren *personako ber-a* erabiltzen da bizkaieraz izenordain lez, gipuzkerako *ur-a* -ren balio beragaz. Gure ustez, bai *ber-a* ta bai *ur-a*, biok, *ber-a* dabela bere jatorria. Ara amen, beste gauza xeble bat. Betiko letratuak diño bizkaierako *bera* “indartua” dala baiña gipuzkerako *ura* ez ta biok jatorri berekoak dira. Zoritzarrez, amen be, jakintsuak, bolo-bolo, bizkaieraren kaltetan ezelan be probatu barik.

Beste aldetik, jakintsu askok esaten dabe euskerak ez daukala irugarren “*personako*” izenordaiñik eta bete bear ori *bera* “erakusleagaz” betezen dala. Edozelan be, atzerritar izkuntzalari batek, Benveniste jaunak, plazaratu eban “*teoria*” bat esanez ez dagoala irugarren *personarik* iñongo izkuntzetan, “*no-persona*” dalako, elkarrizketan ez dabelako parterik artzen eta jaramon egin jako jaun oneri. Baiña jakintsu onen aurretik, Azkue lekeitiarrak idatzita eukan lenengo ta bigarren *personako* “*locutivo*” zirala ta irugarrena, aurrean ez egoana elkarrizketan, “*no locutivo*”. Gure ustez, obeto dago Azkuek diñoana Benvenisteren “*no-persona*” baiño. Oin be, sarritan lez, atzerritarrari jarraitu jako ta ez euskalerrriko seme baten esanari, dotoreagoa ta ilustragoa dalako, naiz eta egokiagoa Azkuerena izan.

Edozelan be, probatu dogu *neur-oni/ber-au*, *neur-ori*, *neur-a*, izenordain indartuetan, lenengo zatiko *neur* ori “*personak*” izentatzeko sortu zala ta, orrelan, gaurko aginterako (imperativo) *bege*, *betor*, *bedi*, adizkietan ageri dan asierako *b-* orrek, *neur* izenordaiña dabela bere jatorria, *zatoz*, *zagoz*, *zaitez*, adizkietako *z-* ori, *zeur* izenordaiñetik datarren legez. Ortaz, euskerak badauka irugarren “*personako*” izenordaiña. Benveniste jaunaren teoriak ez dau balio euskerarentzako.

Iker J. Laka Guenaga

ETA 9.– JAKINGARRI BATZUK

IBAIK

Erriak, batez be aundienak, ibaien ondoan batzen dira, ura ta garbikuzia bearrezkoak diralako.

Afrika'ko ibai nagusiak Kongo eta Nilo dira. Nilo da munduan luzeena, 6.500 km. Kongo laburragoa da, 4.200 km.

Ameriketako Amazonas ibaia da munduan urik geien dardoana eta onen urrengo Kongo.

Missisipi da Ipar-Ameriketaaaako ibai erraldoia.

Asia'n Indo, Ganjes eta Yang-Tse.

Europa'n Luzeena Danunbio. Rhin ontzientzat ona.

MENDI-BIZKARRAK ETA IBARRAK

Antxiña, millak milloiak urteak dirala, gaurko mendi aundiak itxaspean egon ziran eta azpiko su-indarrak eraginda goratu ziran, gero euriak eta aizeak leundu dauz eta orreik dira mendi zarrak. Mendi gazteak, ostera, oraindiño aitz biziak dira.

Sasoi orretakoak dira Arri-mendiak (Rocosas) eta Andes, Amerika osoan goitik beera 18.000 km.'ko luze-ran.

Europa'n, Auñamendi, Alpeak, Apeninoak, Karpatoak dira gazteak.

Asia'n Kaukaso ta Himmalaia.

Sumendiak batzuk beti sutan dagoz, esaterako Italia'ko Stronboli. Beste batzuk 4.000 urtean geldu dagoz, itzaldiak dira.

Mendi txikiak muiñoak edo mailloak esaten jake.

Leun-aldeak zugatz barik eta bedar luzeakaz ba'dagoz sabanak dira, zugazti aundiak ba'daukez taigak eta leituta ba'dagoz tundrak.

AIZEAK

Monzoioak: Itxasotik lurrera eta alderantziz doaz, urtsuak dira.

Alisioak lur-garritik gora naiz beera joaten dira eta gero orrein aurkakoak tropikuetatik lur-garrira.

Mistral: Probentza'koa da eta Rodano ibaitik itxasora sartzen da.

Siroko: Ego-Sortaldetik dator eta errea da.

Alisioak: Lur-garritik gora naiz bera doaz eta gero alisioen aurkakoak torpikotik lur-garrira etorten dira.

Mistral: Probentza'n Rodano ibaitik itxasora doana.

Siroko: Ego-sortaldetik, Sahara'tik dator eta errea da.

Zikloiak: Antilletan sortzen dira indartsu eta katagarri.

Firi-firia: Goizean itxasotik legorrera eta arratsaldean alderantziz, (Brisa).

ITXAS-AZPIKO IBAIAK


Itxas azpian ibai aundiak dagoz, batzuk otzak eta beste batzuk beroak.

Beroak dira Mexiko'tik Kantaurira datorren Gulf Stream eta Itxaso Barearen barruan Japon'era doan Kuro Sibo.

Otzak, Kanada'ko sortaldean iparretik datorren leitua eta Afrika ta Amerika barrenera doan ego-ardatz-burukoa.

Jakingarria asko dagoz gure mundu onetan. Izan gaitezan jakin-zaleak.

Olazar'tar Martin'ek



Amazonas-ibai urtsu ta nagusia, Brasil'en.

IRAK'EKO ERBESTEAN ASIRIAR ITZEN OIARTZUN BIZIA ARAMEOZ ITZEGITEN ZUAN JESUS'EK

Ludiak Europa du bere ardatz, ots, zati nagusi. Eta gainerantzeko lurralde guztia, oso garrantziko ba da ere, ertigintzan, izkuntzetan eta abarretan gure europar bizitokiak daukan kultura-mail goen ori ezin izan du arlo askotan gaingitu.

Ameriketa oso urbilletik datorkio lotuta Europa'ri, emendik lurberri aietara joandako bizilagunak askotxo baiditu eta norberatasunik galdu gabe bertakotzat atotsiak, artuak alegia.

Asia'ko kontinente aundia, bertatik urrundutakoekin eta beren berean jarraituz latiniaren kimu ez dan izkuntza dakartenez, asiriarrak kutsu aundiko auzo ugariak eratzen dituzte amerikar erri nagusietan.

Nolanai ere, asiatarrek berauek Tigris eta Eufrates ibai tartean bizitzen, gauza askotan eutsi diote beure izaerari eta asko erakutsi ere munduari. Ba' dira arabiarren bultzakadaz izkuntza baztartua eta ixildu-erazia dala diotenak. Izan ere, izkuntza bera gutxitzat artua –illa ustez– bizirik diraun eta iru milloien ezpaitan dabil mundu guzian banatua. Siria'n, Irak'en, Turkia'n, Libano'n Errusia'n...

Arameo-itzegille guztiak Mesopotamia-iparretik datoz; eta, erri auk aurkitzen diran alkargune ortatik dator arriakua; sakabanaketa (diáspora) urtetan eta urtetan aldaketarik ia gabe iraun duana, gero ta bertagotik ikusten du auzokoen ikumen galgarria, izkuntzaren ofizialtasunik gabe (estatu politikorik sortu ezik), oso zailla da izkuntzari eustea, eskolak bai dira, (tokialde guzitan, ikastetxeak bai ditugu) izkera makalen sendabide ta motorra, Israel'en ikusi dan bezela.

Era ontan dauden izkuntzak aurrelari, buruzagi ausarta bat edo geiago ibilbide azkarrean gaixotzen ari dana zutik eta indartsu eutsi ta burua jasotzeko, beste izkuntzen mailla irabazteko. Antziñako bi milla edesti-urtez sendo bizi izan dan izkuntzak merezi du gaurko itzegileen eta urrutitxoeren ilusio, abertzaletasuna eta diru-indarra.

Pis Alibek, asiriarrak kontzientzia. Gaur-gaurko arameo-izkiera ilusioz zabalten ari dana, Pius Alibek da, Irak-iparrean, Ainkawa errixkan jaio eta bertan bizi izana. Bere ama-izkuntza arameo da, Jesukristok berberak itzegiten zuana. Familiaren egoitz-aldaketak eta Pius-berberarenak eramatzen dute batetik bestera.

Bitarte luze auetan, ez-jakin gorrian, lasai bizitzehn, gogor ekin zion kurdua ikasteari ta gainera gaztelania, katalana eta inglesa.

Irak'eko egoera politikoak luzarazi egiten diote lengorakora biurtzea. Izkuntzalari eta berritzale egin zitzaigun. Zeuzkan kristau kutsuko sinisteak, bestelakoak baiño sakonxeagoak, Bartzelona'ra bultzatzen dute eta emen bere-berea izango zuan (gastronomiaz zaleturik) "Mesopotamia" jatetxea zabaldu zuan.

Etzan geldi egotekoa. Lan aundi baten aurrean aurkitzen zan: aur zalarik orduak labaintzen zaizka ixilik ezpaitan zerabilkian ama-izkera egunerokotzen.

Buru ta eskubete lan asi zitzaigun auskaloko liburu zarrak aztertzen eta Kristo aurretiko Aldi'ren goruan irule, gori biotz-labea, erleek lore-miazketan antzo, ari ta ari dagio lanari.

Izkuntz-baratzean langille, bere barneko gau beltza kantari jarri zitzaion pozaren pozez, izarrak maiz argitzen ziotela bere lantokia, eskuizkribu ta liburu klasikoan irakurtetan murgil.

Bizitzak daragio eta ardi-billa edozein artzai bezela "erri txikietan eta mendi-baztarretan nabil, itz-ale banatuak nai nituztebil ziolarik.

Urteetan barrena nere izkuntz-kabia ba'nenkusan umetsu.

Eta Kristo aurretiko aiek langille iaioak ziran bezela, eraberritan asi zan idazten. Eta gertakunak Persépolis bezelako ertilan bikaiñak altxatzen gisa berak ere bere kopetaren izerdiz utzi zion erriari izkuntz landu-barritutako altxorra.

Esan bearra dugu arameoa idazketa semitikoa dala, Konsonantikoa. VIII garren gizaldia ezkerro, arameo izkuntza-abadea fenizia orrenetik bereizten da eta au oartzten da Hamat'en aurkitutako adrilluetan.

Judu-erria arameoz baliatuko da.

Eta eberkera izan arren beurea, erbestea ezkerro arameoa mail-mailka erabiltzen asiko da. Amabigarren gizaldian Asia txikian barrena India'ra edatzen zaigu, eskubitik ezkerrean irakurri bearrez.

Biblia'ko zenbait zatitan arameo itzak ikusten dira. San Mateo'ren arabera, Jesus'ek gurutzean esaten dituan itzak "Eloi, Eloi, lema sabachthani" arameozkoak dira. Eta beste itz auk ere bai: Kafarnaun, Marta, Golgota eta abar. Ez dirudi Jesus'ek latina erabilli zuanik, erromar



Hurrengo orrialdean jarraitzen dau

konkistatzallena bai zan latīna. Latīna erabiltzeko ez dugu arrazoirik aurkitzen, eguneroko izkera arameoa bai zan. Arameoa izkuntz ofizial bezela Damasko inguetan erabiltzen da. Ejiptoko Elefantina ugartearen aurkitzen dira papirutan idatzitako zenbait arameo-idazkiak.

Egaña'tar Gotzon

IDAZKERA

1	ܟܘܼܠ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
2	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
3	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
4	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
5	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
6	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
7	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ
8	ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ ܕܢܘܼܫܝܢ

Eragin aundikoena kurdua izan da. Eta gero persiatarra, turkua eta arabiarra.

ABUNA DI BISHEMAYA

Gure Aita zeruetan zarana

ITQADDASH SHEMAK,

Santu izan bedi zure izena

TETE MALKUTAK

Etor bedi zure naia

TIT'ABED RE'UTAK

Egin bedi zure naia

KEDI BI SHEMAYA KAN BA AR'A

Zeruan bezela lurrean ere

LAJMANA HAB LANA SEKOM YOM BEYOMA

Emaguzu gaur gure eguneroko ogia

U SHEBOK LANA JOBEINA

Barkatu gure zorrak

KEDI AF ANAJNA SHEBAKNA LEJEIBINA

Guk ere gure zordunai barkatzen diegun ezker

WEAL TA'ALNA LENISION,

Ez gaitzazu utzi tentaldian erortzen

ELA PESHINA MIN BISHA.

Eta zaitu gaitzazu gaitzetik.

Aita gurea arameoz.

Jesukristo'ren garaian Palestina'ko izkuntza izan zan.

ARGITUAK

Argituak edo ilustratuak edo iluminatuak esaten jake Europa'ko laterrietan,XVIII-XIX gizaldietan agertu ziran filosofo edo jakitunai, baiña onein irakatsiak filosofia baiña zabalagoak eta bizitzarako bearragoak dira. Anglanderrian, Frantze´n eta Alemania´n dauke asierea.

Jakitun argi oneik taldea dira, baiña ez dauke euren ordezkari izan leiteken jakitun bakar bat.Euren pentsareak alkartzen dauz guztiak.

Kant´ek labur eta argi agertu nai izan eban jokaera au:"Gizonak ume-arotik urten egiten dau eta bere egiak besteen menpean egon barik agertzen ausartzen da: "Sapere aude" da onein oiua".

Orrelan ba, buru argia da irakatsi guzti onein oiñarrria, baiña ez lengo folosofuen buru argia, geiago da enpiristen bidea zentzuetik asi eta filosofi-legeak egiten dauzana., ez dauka buruan jaiotako pentsabiderik,eratzeko almena da.

Danaren oiñarrria gizakiak egin daiken aurrerapena da eta orrelan gizakien edestiak , filosofiaren edestiak,buru argi orren aurrerapena dau oiñarri,erdi-aroko illunpetik urten eta argien aldira sartzeko.

Jakitun oneik aurretikoak irakatsia alboratu egiten dabe, erlejiñoz iragarria, batez be katolikutasuna, eta deismoa da euren erlejiñoa:misterio bakoa,buru argiaren neurrikoa, jainkoa ba-dagoala sinistea naikoa dauan erlejiñoa.,arima il-eziña eta geroko bizitza sinisten dauzana.

Betiko erlejiñoa alboratzeagaz batera, gizartea aldatzea da euren guraria, gizakien arteko ezbarditasun guztiak kenduta. Orrek Frantze´n iraultzara eroan eban erria, baiña ez da ori bearrezkoa.

Ez dabe onartzen Tronua ta altarea bat eginda egotea. Orrek ulerbide txarra emoten dau Eleizea ulertzeko, orregaitik Eleizearen arerio agertu ziran, batez be anti-katolikua dira.

Oituren eta legeen arloan , laizistak dira.

Kulturaren eragin au ez da erriarena, jakitun batzurena baiña, burgesiarena,ain zuzen, baiña gero Europa´n eta Ameriketara erriaren barru-barrura sartu ziran pentsabide oneik. Eleizea,ostera, apur bat geroago gogor jarri zan euren aurka eta eleizearen egoera au oso kaltegarria izan da kristiñauentzat, batez Batikano´ko II Eleiz-Batza

Nagusiaren aurretik. Batzar onek, zorionez, ateak idegi ebazan, naizta gaur gauzak atzerantz joan.

NEWTON:

Argituen sarreran agertzen da jakitun au, Galileo, Koperniko ta Kepler'eri jarraitzen:

Ez dau onartzen Arosteles'ek irakatsi eban goiko gorpuzkien eta bekoen arteko legeen ez barditasuna eta zientzien ikasbideak onartuz, mekanikaren legeak agertzen dauz munduko eragiña azaltzeko, ez Galileo'k esan eban lez gauzak matematika bidean dagozela uste izanik, matematika ez da metodo bat baiño, baiña ori baiño lenago dago bizi-ikasía, eksperimentzia, eta mekanikaren legeak egin bear da jazoeretatik gora igota, indukziñoa. Gero etorriko da ondorengo legeak ateratea edo dedukziñoa.

Jazoerak artzen dauz ikasbide eta jazokizuna ez dan ezer ezin artu lei ipotesi lez baiño eta ipotesiak ez dira legeak, indukziño bidez ziurtatu bear dira. Orrelan baiez-tatu eban "inpenetrabilidad" edo gauza bi leku baten ezin egon izatea, eragiña, gorpuzkien indarra eta astuntasun edo grabedade-legea.

Ba dagoz, orregaitiño, ipotesi-antzekoak izan arren, ukatu ezin daitekezen oiñarriak, esaterako denporea ta lekua., biak neurri-bakoak eta Jainkoagaz zer-ikusia daukenak.

Gure mundu onetara Jainkoa sartu egiten da, ez mundugintza eta munduari eustean bakarrik, sortu leitekezan okerrak zuzentzeko be bai.

Arrigarria ta onartzekoa Newton'en bidea eta bere fedea!

DEISTAK:

Anglanderriko argituen bideetan deismua agertzen da: gizakiak barruan daukazala ideak onartzen dabe eta orreik, Jainkoak egiñak, aurreko gauzak ezagutzeko bide dirala diño. Izadizko erlejiñoa da ori eta bost oiñarri daukaz: 1) Jainkoa ba-dago. 2) Gizakiak Jainkoa gurtu bear dabe. 3) Jainkoa gurtzeko biderik onena oitura onak dira. 4) Pekatuak damutasunagaz garbitu bear dira. 5) Beste bizitza bat dago zigorra naiz saria artzeko.

Deisten aurka Butler gotzain anglikanua urten eban

EGITEETARAKO ARGITUEN JOKABIDEA:

Berez daukaguz moralerako ideak, bakoitzaren ona eta gizartearena billatzeko. Gizakia berez ez da okerrera makurtua, besteai mezede egitea barru-barruan daroagu. Stuard Mill dogu onen artean ospetsua: Egiterik onena norberarentzat eta besteetaz zoriona dakarrena da, zenbat eta geiagori zoriona ekarri, ohea.

FRANTZETARRAK:

Argituen pentsabidea Anglanderrian asi zan, baiña indar aundia artu eban Frantze'n eta emen ateismoa, kato-

likuen aurka jokatzea eta iraultzaren izukeria ekarri ebazan, baiña ez beti.

Bayle da aurrelari. Onentzat katoliku ta protestateen arteko eztabaidak alperrekoak dira, oiñarrian guztiak dagoz batera, batzuk Jainkoa edo arimea il-eziña izatea onartzen dabez, beste batzuk aurka dagoz eta, gaiñera or geratzen da munduan dagon okerkeria nondik etorri dan aztertzea. Baiña eztabaiden aurka, tolerantzia bear da eta erlejiñoa eta morala bakoitza bere lekuan ezarri. Ateoen gizarteak sarritan ondo betetzen dau morala. Bayle'ren aurka, batzuk ateismoa indartzea dala diño.

ENTZIKLOPEDIA

Bayle izan zan argituen jokabideari indarra emon eutsana eta asieran bertan emon be, baiña ez da ukatu bear entziklopediak izan eban indar aundia: Idazle asko dira, guztiak Diderot eta D'Alembert'en menpena, bigarren au gero alboratu egin zan, 1758n. urtean Ogeta amabost liburu dira eta 1751-1780n. urteen artean argitaratu ziran. Ez zan gauza erreza izan, Frantzeko jaurlaritza aurka jarri zalako. Onek agitaritzaren eta erlejiñoaren aurka dagozela esan eban.

Baiña guztien eritxiak ez dira bardiñak. Ezagutzen doguz Monteskieu, Turgot, Rousseau eta D'Holbach, baiña beste asko ez-ezagunak dira. Billatu daiguzan oiñarriak: Lengo ta oraingoa irakurleari agertzea da euren elburua, gizarte gizakoiagoa ta argituagoa nai dabe, artutako eritxiak neurritz kritikatzin dabez eta laterriaren naiz eleizearen indarra epaitzen dabe, neurritz beti.

Ez da ba, Entziklopedia abadeen aurkako jokabidea, lanbideak eta esku-lanak be aztertzen dauz, nekazarien eta esku-langileen trebe-bideak be bai.

Barru-barruan enpirismoa dau oiñarri buru-argien eritxiatik be gauza asko artu arren.

Egilleen buru ziranen artean Diderot ez da filosofo bide ziur batekoa, D'Alambert ostera obeto osotua da eta jakitun aundia matematika ta fisika-arloan. Onen ustez Locke da zientziko filosofiaren sorburu. Eta pozik ikuzten dau Argien Gizaldia.

MATERIALKERIA:

Entziklopedia beti doa gauzen oiñarrira eta gauza bi argitaratu ebazan: Materialkeria ta gizarte-bizikera barria.

Materialkerian La Mettrie da buru: Sentitzen dana da balioa daukan bakarra, ez ideak be. Landaren, piztien ta gizakien artean ez dago maillaren aldea baiño, erlejiño-arloan zalantza utsa da eta moralean atsegin-billa beti. Bide beratatik doa D'Holbach, atomismoa onartuta eta ortik dator gauzen eragiña, mobimentua, eta gizakiena maitasunak eta gorrotoak eragiña da. Erlejiñoaren aurka dago eta Jainkoa bildurrak eta ezjakintasunak sortu daben gauzea dala diño.

Baiña danetan ospetsuena Condillac dogu: Oso-osoan zentzunen bidekoa, baiña bidea aske izten dau espiritua-rentzat eta Jainkoarentzat. Gogor kritikatzin dau aurreko gizaldiko filosofoak, batez be Deskartes, Malebrantxe,

Spinoza ta Leibnitz, jeometria bide lez artuta oiñarri bako irakatsiak emon ebezalako. Jakituria lortzeko bide bakarra zentzunak dakarrena da. Argi baietatzen dau Jainkoa badagoala eta arimea il eziña dala. Materialista da, baiña bere erara.

Helbetius da Condeillac baiño itxiagoa: Ez dau onartzen besterik zentzunak diñoena baiño, gizakia eziteko gizartearen ona billatzen irakatsi bear da. Eta orrek laburtzen dau atsegiña billatzea.. Eta ori lortzeko politikako askatasuna eta izadizko erlejiñoa bear dira.

POLITIKARAKO BIDEAK:

Bide onetan iru filosofo aundi agiri dira Monteskieu, Voltaire eta Rousseau.

Monteskieu´ren irakatsirik ederrena agintaritzan iru almenak banatzea da, bere “Persitarren gutunak” liburuan argi agertzen dauan lez. Liburu onetan Persia´ko ibiltari bat dator Frantze´ra eta izeka-bidez Frantze´ko agintaritzak kritikatzeko dau. Baiña liburu irakurgarriagoa da bere “Legeen Espiritua” deritxona: (1748): Emen gizarteko agintaritzak aztertzen dauz eta ain ezbaridiñak izateko iturria erriaren izaerea, eguratsa, lutelestia, salerosketa eta jaurlaritzak eurak dirala diño. Ortik sortzen dira toki bakoitzeko legeak. Iru dira beretzat jaurketa-erak: Erkala edo errepublikea, demokrazia naiz aristokrazia, bakalergia edo monarkia eta despota-agintaritzak. Bakoitzak bere oiñarria dauka: Erkalak errian, monarkian oorean, despotismuak bildurean.

Baiña bereizitasunik bereiziena almenak banatzea da: Legegintzak, eragiltzetak eta epaiketak ondo banatuta egion bear dabe. Pentsaera onek indar aundia dauka gaur arte Europa´n eta Ameriketara batez be.

Voltaire (1694-1778), entzute aundiko argitua da eta asko idatzi eban, frantzera ondo apaindua artuta eta geienetan izeka bidez. Bere aurrekoak kritikatzeko egiten dau lan aundia: XVII gizaldiko irakasbideak ez ziran onak, batez de Deskartes eta Spinoza´k irakatsia, Newton da benetako Jainko bidea dakarrena.

Ez dau onartzen askatasuna, politikan izan ezik. Berank beti ukatzen eban erri zeiaeren balioa, baiña Eleizearen dokma guztien orde argituen filosofia ezarri bear da. Eleiza katolikuari “infâme” esaten dautso. Fedeak aurrerapidea galazoten dauala diño. Ez da ba arrietzekoa gero Eleizea onein aurka agertzea.

Euskadunok geure esker ona zor dautsagu Voltaireri: Donostira etorri zan lagun bat ikertzen eta bere liburu baten diño Euskalerra Pirineo mendien alde bietan txistua jo eta dantzari egiten dauan erri bat dala diño.

Eta azkenez, Rousseau (1712-1778). Au izatez ez da argituen artekoa eta euren aurka egoan, “ateismoaren misiolari sutsuak eta tirano dogmazaleak” dirala diño.

Bere ustez gizakiagan geiago begiratu bear da biotza burua baiño. Erromantizismo´ranta doa. Baiña gizarte-itunaren bidez jokabide oso barriak agertzen dauz eta ortik da argituen antzekoa.

Erlejiñoz asieran Kalbin´en aldekoa zan, gero katolikua eta azkenean izadizko erlejiñoduna.

Barru-beroa da, euren eritxien aurka agertzen diranetarikoa. Ezkontzatik kanpora ainbat seme-alaba izan ebazan eta umeak beti umezurtzen artera bialtzen ebazan. Zoratu ta il zan.

Bere ustez, gizakia, berez ona da, baiña gizarteak eroaten dau txarrera. Asieran gizakiak onak ziran, guztiak baridiñak eta aske bizi ziranak, baiña gero txarrera aldatu dira. Orregaitik gizartea barriro bideratu bear da, oiñarri barrietan: Orretarako aldarrikatzen dau “Gizarte ituna” deritxona, baktotxa alkartu bear da besteakaz eta gero berak alkarte orretan agintzen dauzanak, berak bete.: “Geuk egin dogun legearen esanak egin bear doguz. Kant´ek be idea au onartu eta bere moralaren oiñarrian ipiñiko dau. Zori txarrez, gero, jokabide oker batzuk onartzen dauz totalitarismora joteko: Alkartzeko eskubidea, irakasteko askatasuna eta erlejiño-askatasuna ukatzen dauz.

Alemania´n be agertu zan argituen jokabidea eta iru pentsalari aundi daukaz alde: Kant, Goethe eta Hegel.

Chrastian Wolf da emen ezagunena: Sinistedun zintzoa zan, baiña buru argia fedearren gaiñetik ipinten dau. Orregaitik gorrotoa artu eutsoen pietistak eta erbesteratu.

Prusia´ko errege zan Federiko Nagusia egoan bizitzaren azkenean argituen alde. Au aldi aretako filosofo guztiakaz zan lagun eta Voltaire babestu eban.

Reimarus izan zan argitu bat, eberrarra, izadizko erlejiñoaren aldekoa eta Jainkoak egindako iragarketak gizakien asmakizunak dirala diño eta mirariak Jainkoa iraintzen dabela.

Lessing dogu azkenengo argitu ospetsua: Leibniz´en ikaslea: Egia Jainkoak bakarrik daukala diño eta Jainkoak iragarritako erlejiño guztiak onartu bearrekoak dirala, gizarterako onak diralako eta kristautasuna onuratsua goa izan dala deismua baiño, baiña ez da bide ziurreko filosofoa: Kristautasuna aldi baterakoa dala eta azkenengo ekiñaldia betirako ebanjelioarena izango dala.

ZER ESAN ARGITUAI BURUZ?

Gizakia ipiñi ebela ardatz lez; aurrerapena, artutako irakatsien gaiñetik, bide argitsu baterako, baiña or be badagoz illuntasunak, batez be beste mundua eta goi-izaerea ukatu ebezalako. Zalantza barik gizartea eratzeke irakatsi egokiak eta gaur be balio dabenak emon eta ezarri ebezan.

Olazar´tar Martin´ek

EUSKERAZALEAK

IPUIN-SARIKETA 2005


- 1.º Saria: **Joxemari Murua Goñi**
- 2n. Saria: **Palmi Merino**
- 3n. Saria: **Asier Legarreta**
- 4n. Saria: **Osintxu**
- 5n. Saria: **Ziortza Arrien Orbe**

GALDAKAO'N DANTZAK SOIÑUZ ETA KANTUZ

1587n. urtean asten dan liburu baten seillu-antzeko marrazki bi agertzen dira, argazkian ikusten dan lez.

Urte areitan batzarrak be eleizako arkupean egingo ziran. Siñadurak eta akorduak siñatzeko arrizko mai bat egoan eta gaur be bertan dago. Gaur egun argazkian agertzen dan maia bera da baiña antxiñakoa mai-gaiñeko arria baiño ez da, bealdeak barriak ditu-eta.

Batzarrak bertan egiten jarraitu eben, Baiña 1818n. urtean erriko batzarrak Udaketxeko geletan egin eta arrezkero be ortxe bertan egiten dira,udaletxean.



1587n. urteko liburuan, seillua.

TANBOLINTERUAK:

1611n. urtean 20 errial emon ziran abustuko Andra Mari egunean eta besperan txistua jotzen ebillen tanbolinteruarentzat. Lan bardiñagaitik, 1614n. urtean tanbolinteruarentzat 22 errial emon ziran. Eta arrezkero Andra Marietan eta beste jai batzutarako be tanbolinterua ekarten zan.

Organua eta onen jolea.

1686n. urteko otsaillaren 3'an Eleizaldeko auzoan dagoan Andra Mari eleizan batzar bat egin ei zan organu bat bear zala eta derrigorrezkoa zala baita premiazkoa be soldata baten prestakuntza organu-jole bat ekarteko eta bide batez arek umeeri organua jotzen irakatsi eta bera eskola-maisu be izan zedin.

Derrigorrez bear zala eta Tomas Eizaga jaunaren aurrean organista eta eskola-maisu Diego Jauregizuria izendatu eben.

1686n. urtetik 1692n. era arte izendatze orrek jarraitu eban.

1600N. URTETIK 1700N.ERA´.

Galdakao'n eleizako jaiak zirala-ta, 1611n. urtean be, agustuko Andra Mari egunean eta aurreko egunean jotearren, tanbolinteruarentzat 20 errial emon ziran.

Artean be, bai agustuko Andra Mari, Santa Krutzek eta beste jai-egun batzutan be limosnea batzean joatea izaten zan tanbolinteruen bearra, eleizeak orretarako be txistularia kontratatzen eban-eta.

1627n. urtean abustuko jaietan 136 marabedi emon outsoezan tanbolinteruari. Eta 1629n. urtean, 1637n'ean, 1637n.´ean, 1640n.´ean eta 1642n'ean be 24 errial emon jakozan. Baita geroztiko urteetan be tanbolinterua ekarri eben.

1675n. urtean, eta gero be bai, klerigoak galazota euken erriko tabernara sartzea, jateko edo edateko, jokoren bat egitea edo erriakin dantzan egiten ateratzea be ekskomuniñoagaz zigortzen ebezala.

1686n. urtean otsaillaren 3n. egunean Galdakao'ko eleizatean egin zan batzarrean, errenta bat ordaintzeko akordu batera eldu ziran :Derrigorrez bear zala-ta Tomas Eizaga jaunaren aurrean organista eta eskola maixu Jauregizuria´tar Diego izendatu eben.

1689n. urtean otsaillaren 2n. egunean Honzoño´tar Santiago jauna urte birako organista ta eskola-maisu-tzat artu eben. Egun orretako konformidadea Cavildo Eclesiastico eta Republica de Galdakano´ren arteko akorduan izan zan.

Gero, barriro be egon zan Diego de Jauregizuria jauna baiña oraingoan organista, sakristau eta maisu.

Derio´ko artxiboan dagozan Galdakao´ko Eleizearen liburuetatik dakigu 1690n. urtean au be ba-diñoskula:”Les prohibe a los clerigos entrar en tabernas públicas a comer o beber o jugar o salir a danzar en publico o bien jugar a la pelota, al juego de argolla, a bolos o a algún otro juego, y tambien a danzar mascararas y disfraces o meterse en negocios so pena de excomunión.”

1700N. URTETIK 1800N.´ERA.

1700n. urteko ikustaldian Santa Ageda besperako kanpaiak jotea galazo egin zan. Orrek gauza bat esan

nai dau: Kanpai-jote ori santagedaren koplen kantalariaiak etxerik etxe eskean izango zirala gogoratzeko izango ei zan.

1784n. urtean urriaren 21n. egunean organu-jotzaille zan maisu jaunari 234 erreal eta 12 marabedi, parrokkiko organua konpontzearren ordaindu jakozan, erdia "cavildo" ren kontura eta beste erdia Galdakao´ko Errepublikaren ardurapean.

1632n. urtean eleixaldeko eleiz nagusiaz batzaldudondoko ermitak.1.-Santo Kristo, Zamakona auzoan (erritarrak Zamakoa esaten dautsoe) eta geroago Kurtzeko ermitea izenetik, Kurtzeko plazea, kurtzeko udal-etxea eta auzo modura erabilliaz Zamakoa eta Kurtze, bi auzune modura gaurko jenteak erabilten dauz. 2.-Arteta´ko San Anton ermitea.3.-Bekea´ko Asentzio ermitea. 4.- Oinkiña auzoko San Andres ermitea. 5.-Tozua´ko Santo Tomas. 6.-Ereño´ko San Martin.7.-Gumuzio auzoaldean Txispamendi parajea San Bernabe. 8.-Ganguren´ko Santamañe, emen abade bat bizi zala. 1774n. orrialdean diño eleiz parrokia zala, parroko ta guzti.9.-Lemoa´ko San Eloriente. 10.-Etxebarri´ko San Esteban.

1690n. otsailleko 3n. egunean, bisitatzaillea Arratia aldean Areatzara (Villa de Villaro´ra) agertu zan eta an egon ziran eleizetako abade ta klerigoeri ta batzarkide guztiai taberna erritarretan bai bakarrik naiz beste bategaz joatea, jaten edo edaten edo jokoren bat egiten sartzea galazo eutseen, baita errikoekin dantzari egitea eta negozio-lanetan sartzea be galazota euken, ekskomunikazioaren zigorraz..

Eleiz eta ermiten portikupeetan argolla-joko, bolujoko, pelotan edo beste jokoren baten ibiltea galazota egon zan, ekskomunikazio bidearen podezuz.

Bizitaille arek klerigo guztiai gogoratu-azo eutsen aurpegi-estalki eta mozorro-dantzak egitea, ekskomunikaziño zigorra bitarte zala, galazota egozala.

1792n. urtean agiritegi baten kanposantua ta arkupea eleixaldeko Andra Mari eleizan eta inguru guztian dagozela esaten dausku.

1800N. URTETIK 1900N- ERA:

1883n.urtean, 120 errial emon ziran errefreskoak artezagaitik kantariantzat.

1872n. urtean abenduaren 22n. egunean, D.Martin Olazarri jaunak Eleixalde´n, eleizan, joko eban organua eta D.Ramon Bilbao jaunak 1880´tik 1883n.´era arte D.Migel Agirre izango zan organu-jole.

1883n. urtean 120 errial emon ziran kantalarien errefreskorako. Eta 1886n. urtean D. Manuel Jauregi jaunari 9 errial emon eutsoezan koruko kantariai Korpus eta Andra Mari jaietan errefreskoak artu dagiezan.

GALDAKAO´KO ERES-BATZA (BANDA DE MÚSICA)

Eres-batza 1887n. urtean sortu zan, "Banda de Música" izenarekin, Dinamita lantegiaren babespean.1901n. urtean D.Tomas Larrinaga abade jauna Usansolo eta Kurtzeko eskola munizipalean musikamaisu eta irakasle izan zan. D. Tomas jaunagandik eta guda denporara arte Eres-Batzak musikea beragandik ikasi eban.

ERES-BATZA (BANDA DE MUSICA):

Galdakao´ko Udal.Batzak, 1894n. urteko urterillaren batean eres-batzaren zuzendaria Udalak baimenduten dau Santa Ageda besperan serenatak emoteko, baita edozein beste kuadrillarentzat baimen bardiña egoala.

Naita lenago be organu-jole izan, 1890n. abenduko 28n. egunean D.Julian Larrinaga abade ta sakristau jauna agertzen da eta organista modura be 1902n. urtean aprillaren 2n. egunean eta geroago be ba-egoan.



Galdakako erri ortan Eleixalde auzunean 1892 garren urtean.

1896n. urtean eleiza barria zabaldu zan eta ospatu zan jai ori armonioa jota, orretarako Julian Larrinaga jauna ekarri eben.

GALDAKAO´KO JAIK:

1899n.urtean Santa Krutz´en errepetiziñoan Berriz eta Durango errietako espatadantzariak etorri ziran, zezenketaren jai-aldiaren ordezkari eta 1900n.urtean Aurreskularrien sariketean, Santzolariena eta Samaritanena egin ei ziran.

1828N. URTEAN IKUSTALDIAK GALDAKAO´RA:

Eleizako agintariak Galdakao´ra 1828n. urtean egin eben ikustaldia bertoko ermitak ikustera, oneik ziran:Santo Kristo, (gaur Zamakona auzoan), len Kurtzeko auzoan egoan Udaletxeko plaza-ondoan eta Ganguren´go Santa Marina, bertoko gaillurrean,. Bisita orretan Bekea auzoan Asentzio ermitea, San Bernabe Gumuzio auzoan, San Andres ermitea, San Bernabe Gumuzio auzoan, San Andres ermitea Oinkña auzoan (Usansolo, trenaren estaziño edo geltokiaren ingurutxuko baserriete bat baiño ez zan eta), San Antonio abad edo Santatoi Arteta´ko auzoan, Santamañe ermitako gauzak 1782n. urtean kurtzeko ermitara eroan ebezan eta Santamañe´ko ermitea 1804n. urtean desegindu ondoren ango gauzen artean iru atril be agertu ziran.

1900N. URTETIK 1910N. URTERA

D. Julian Larrinaga eta D. Tomas Larrinaga abadeak ziran eta anaiak be bai, baita organu-joleak be bai. D.Julian organuan eta D.Tomas tiple-koruaren egille eta zuzendaria. 1902n. urtean aprillaren 2n. egunean eta geroago be, D.Julian organu-jole izango zan, baiña 1909n. urtean, 1916n.´ean bera ´1927n.´ean organista lez Tomas Larrinaga agertzen da.

BERTSOLARIAK:

Bai Galdakao´n eta leku guztietan, bertsolariak, geienetan tabernan, sagardotegian eta olango lekuetan eta inguruetan agertu dira. Eta ez bakarrik bertsolariak, baita albokari, panderodun eta bai andra eta bai gizonetzko soiñulari (euren soiñu txiker edo trikiriakaz), dultzaiñeru, jota-dantzari, espata-dantzari, aurrekulari, txistulari, irrintzilari, txilibutulari, sapotxistu jotzaille, gitarralari eta abar 1900n. urtearen inguruan emen beti izan doguz.

1904n. urtean D.Julian Larrinaga organulari eta sakristau lez agertzen da eta 1909n. urtean bere anaia zan Tomas Larrinaga Santa Maria Kurtzeko eleizan organeru lez agertu zan, 1936n. urtera arte. Azken urteetan eta bere utsune batzutan organista eta txistulari izan zan Sabin Zenarruzabeitia eta orretan agertzen da organu-jole Kurtzeko eleizan.

1905n. urtean, Santa Kurtzeko jaiak irailaren 14, 15, 16´an eta 17´an izan ei ziran. Perossi´ren iru abo-

tsetako mezea Larrinaga jauna organu-jotzaille zala abestu ei zan. Mezearen ostean aurrekuak eta Eres-Batzaren eres-aldia izan ei ziran.

Arratsaldean zezena, Eres-Batza, Zornotza´ko tanelinteruak, asto ariñeketak eta erromeria eta musikarloan, beste aizezko soiñu tresna eta kuerdako beste soiñulari batzuk be izan ei ziran. 24n. egunean, Eres-Batza taldeagaz jaialdia egin zan.

1906n. urtean, alde batetik Zornotza´ko txistulariak maiatzean asi eta urillaren arteko jaiegunetan arrastiko iruretan asita. Eta lau egun Santa Krutz´etik eta San Andres egunerakoak arrastiko ordubietan asita, Zornotza´ko txistulari bi izateko ituna egin zan.

1907n. urteko irailaren lenengo egunean diana eres-batzak eta

dultzaiñeruak jo eben. Arratsaldean erromeria, bandeagaz eta dultzaiñeruakaz.

1907n. urte orretan irailaren 14n, egunean arrastiko iruretan bai andrazkoentzat eta bai gizonetzkoentzat aurreku-txapelketa izan zan eta emeretzigarren egunerako 10 urtetik 15 urteraiñoko umeentzat aurreku txapelketa izan ei zan.

Santa Kurtzetako jaietan Abadiño eta Elorrio´ko espatadantzariak parte artu eben.

Inguruetako espatadantzari onenak Abadiño errikoak izan ziran eta euron txistulariakaz parte artu eben. Egun batzuk lenago, 15n´egunean Elorrio´ko umeak espatadantzea dantzatu eben.

1908n. urtean, irailaren 14, 15, 16 eta 19´an goizeko seiretan pasakailleak, txistulari eta dultzaiñeruakaz. Baita arrastiko iruretan asi eta gaueko amarrak arte erromeri aundia, txistulari, dultzaiñeru eta eres-batza-gaz egin ei zan.

1910n. urtean, Galdakao errian “Santa Barbara” dantza-taldeuskalduna sortu zan Zugatzu´n, Santa Barbara eta San Inazio egunetan dantzan egiteko. Dantza-taldearen sortzaille Aita Josulagun zan Chalbaud jauna izan zan.

Amasei espatadantzarien dantza-maisu Bilbao´ko Eusko gaztedia (Juventud Vasca)´ko bat Dinamita Lantegian egoan iturgin bat izan zan. Eta amasei neska irlanderen irakasle, Durango-aldeko Bernarda izeneko andrazko bat, Dinamitan langille zana.

Dantza-taldearen bandera Dinamita Lantegi´ko modistak egin eben. Eta espatadantzarien argazkia 1914n. urtekoa daukagu.

1936n. urtean taldea desagertuta egoan. Baita Kurtzeko, Usansolo´ko ta Erletxeetako batzokietako dantza-taldea be desagertu egin ziran.

Jose Mariano Barrenetxea´k

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Amar ezbardintasunak.

JEROGLIFIKOA

AZ - a

Zenbatgarren eldu zan elmugara?

EUSKERAZALEAK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

200 pezeta (1,20 euro)

BBK

txartelak



BBK txartelek opariak gordetzen dituzte

Ordaindu erosketak edozein
BBK txartelekin eta, hilerro,
itzelezko opariak irabazi ahal
izango dituzu.

ISSN: 1132 - 1350

Lege gordailua: BI-1452-85

FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO

www.bbk.es

bbk²